

bilbao museoa

**BBKateak**  
**Gentileschi –**  
**Mogrobejo**

Arte Ederren Bilboko Museoa  
Museo de Bellas Artes de Bilbao

**bbk** 

# Gentileschi – Mogrobejo

## 14. aretoa


Eraikin zaharra  
Lehen solairua

## Coup de fouet

Modernismoak adierazpen hau erabiltzen du konposizio baten erritmoa antolatzen duen kurba-jokoari erreferentzia egiteko. Loten eta bere alaba indartsuen eskuei aplika geniezaieke, Sodomaren laidoa eta gertatzear dagoena lotzen dituen begizta ikusezina. Eva eta Ugolino ere beren gainean biltzen dira, beren bekatuak ezkutatu eta anatomia ahaltsua nabarmentzen duen zilarraren trazu harikorraren pean. Urregin baten seme Gentileschi eta Mogrobejo urregina forma borobil eta sentsualez elkartuta, Hero eta Leandro hartzen dituen uhindura edo ahanzturaren alegoriaren hondarrak gure begien aurrean isurtzen dituen ontzia bezala.

# 1

## Eraikin zaharra Lehen solairua



# Orazio Gentileschi

1563-1639

Florentziako urregile baten semea eta Artemisia Gentileschi margolariaren aita, Vatikanon hasi zen lanean, multzo piktoriko handiak fresko-pinturaz apaintzen. Hasiera batean, estilo naturalista eta Caravaggioren ezaugarri bereizgarria zen argi-ilun biziko modelaketa landu zituen, baina, laster, oso argitsua eta sofistikatua zen kromatismorantz bilakatu zen. Genoan eta Torinon ere lan egin zuen, bai eta Parisen ere, Maria Medici erreginentzat. Ingalaterrako Karlos I.ak gonbidatuta, 1626an Londredera joan zen, eta, bertan, Buckinghameko dukearentzat nahiz Henriketa Maria erreginentzat margotu zuen, batez ere. Epealdi horretan jaso zuen enkargu handiena Greenwicheko Queen's Houseko sabaia apaintzea izan zen. Horrez gain, gai biblikoko konposizio ikusgarriak egin zituen.



## **Lot eta bere alabak**

c. 1628. Olioa mihisean

Leize baten barruan garatutako eszena hau bat dator pasarte bibliko batekin, eta, bertan, Lot eta bere alabak Sodomako sutetik doaz ihesi. Atzeko aldean, eskuinean, sutan dagoen hiria eta Loten emaztearen iruditxoa daude ikusgai. Izan ere, gatzeko estatua bihurtu da, atzera ez begiratzeko agindu jainkotiarrari aurka egin ondoren. Isuritako ardoa Loten mozkorkeriaren erakusgarri da, alabek mozkortu egin dutelako berarekin seme-alabak edukitzeko, bizirik dauden bakarrak direla uste baitute. Margolan honen koloreak ezin ederragoak direnez eta konposizioa txundigarria denez, Gentileschiren epealdi londrestarraren lan onenetakoa da.

# Nemesio Mogrobejo

1875-1910

Lehenengo prestakuntza artistikoa bere jaioterria zen Bilbon jaso zuen, eskulturagile moduan Parisen (1894tik 1897ra bizi izan zen bertan) eta, batez ere, Italian prestatu zen arren. 1902an, lehen aldiz bidaiatu zuen bertara, Bizkaiko Diputazio Probintzialeko pentsiodun moduan. Lehenengo eta behin, Erroman finkatu zen; eta, gero, Florentzian. Hala ere, bere biografiako epealdi luzeagoetan edo ez hain luzeetan, Bartzelonan, Grazen (Austria) eta Munichen lan egin zuen. Hiri horietan, bere lanek bezero burgesen arreta erakarri zuten, eta hainbat erretratu eta irudi apaingarri txiki egin zituen haientzat. Erroman, 1904ko udaberrian, *Hero eta Leandro* modelatu zuen, eta, hiru urte geroago, brontzera pasatu zuen Florentziako tailer batean, garai hartan oso gaixotasun larria zuen eskulturagilearentzat oso zaila izan zen galdaketa-prozesuaren bidez.



## Hero eta Leandro

1904. Brontzea

Helespontoko alde europarrean bizi zen eta Afroditaren emakume apaiza zen Herorekin maiteminduta zegoenez, gauero Leandrok itsasartea gurutzatzen zuen igerian Asiako kostaldetik, bere maiteak zeukan argiaren gidaritzapean. Gau batean, Hero lo geratu zen, eta, haizeteak argia itzali zuenez, Leandrok norabidea galdu zuen eta ito egin zen. Neska gazteak, etsipenaren etsipenez, bere buruaz beste egin zuen itsasora jauzi eginda. Heldutasun artistiko bete-betean, Mogrobejok Ovidioren *Heroiden* kondaira hori gauzatu zuen, eta olatuen artean galdutako maitale hilak irudikatu zituen anatomien maisu-azterketaren eta bolumenaren tratamendu erritmikoaren bidez.

2000an eskuratua

XVIII. mendean, Ugolino della Gherardesca, Donoraticoko kondea, Pisako jaun bihurtu zen, eta bere bandoaren, gibelinoen bandoaren aurkako azpilana egin zuen. Gibelinoek boterea berreskuratu zutenean, haien liderrak, Ubaldini artzapezpikuak, seme-alabekin konfinatu zuen Torre della Mudan, harik eta denak gosez hil ziren arte. *Komedia Jainkotiarrean*, Dantek Infernuan (traizioari eskainitako bederatzigarren zirkulua) lekuratu zuen noblea, bere etsaiaren burezurra irrikaz jaten. Hain zuzen ere, eszena hori islatzen da pieza honetan. Mogrobejok Ugolinoren historia ankerra eta Evaren era bateko eta besteko irudikapenak (lehenengo emakumea, jatorrizko bekatuaren eragilea) erabili zituen, edertasun handiko azterketa anatomikoak zilarrean gorpuzteko Durriok garatutakotik hurbil dagoen *art nouveau* estetikaren bidez.





## **Ugolino**

1908-1909. Zilarra

2009an eskuratua



## **Eva**

1908-1909. Zilarra

2009an eskuratua

# BBKateak

*BBKateak* erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.